



Eman hegoak euskarari



Santu kulturalak: literaturaren bide bihuarriak

Mendebaldeko gizarteek, erlijiotik urruntzen joan diren heinean, santutasunlaikoak biltzeko beharra nabarmendu dute

JON KORTAZAR



Iraragan ekainean Literaturako zenbait aditu bildu nituen Bilbon Literaturaren bide bihurriaz hausnartzeko eta berriak aztertzeko. Gure herrian «Santu Kulturalak» duten eraginez hitz egin genuen. Euskadi Irratia hurbildu zitzaigun gure kezka arduratzeko. Esatarriak, Erik Aznalek, gogoratu zidan aspaldi landu nuela gaia hementxe, artikulu eta egunkari honen bidez. Eta hizpidera ekarri zidan Mikel Laboari buruz, 2020an agerturiko artikulu bat. Eta Aresti ekarri genuen hizpidera.

Arestiren kasu iluna

Idatzita utzi zuen Bilboko poeta handiak: «Jainkoak eztezala nahi Bilboko karrika bati/ nire izenik eman dezaiotela./ (Eztut nahi bizargile hordi batek esan dezala:/ Ni Arestin bizi naiz, anaiaren/ koinata nagusiarekin. Badakizu. Maingua)». Eta bai, jarri zioten Bilbon Aresti izena kale bati eta Batxilerrereko Institutu nagusi eta fama-

tu bati (han irakatsi zuen Atxagak). Ez dut inoiz ongi ulertu bertsoa. Arestiren umoreari jarraituz bizargile hordiare irribarre xumeko txantxa, bai, anaiaren koinata nagusia, hordiaren emaztea baita, zuzen-zuzenean.

Baina kalearen aipamenak beti pentsakor utzi nau. Askok bezala nik ere ulertzen dut lehen esaldia: «Jainkoak eztezala nahi Bilboko karrika bati/ nire izenik eman dezaiotela». Baina ez dakit zer esan nahi duen. Arestik dirudien ez zuen nahi frankismoaren «santu kulturala» izan.

Santu kulturalak

Aitortuko dut: aspalditik harra-patu nauen gaia da. Mendebaldeko gizarteek, erlijiotik urruntzen joan diren heinean, santutasun laikoak biltzeko beharra nabarmendu dute, erlijioaren moduan beste era batera adierazi. Horregatik lehenago erlijio santuek betetzen zuten to-

kia osatzen dute «Santu Kulturalak» gizarte laiko batean. Horregatik «Santu Kulturalen» gaiak beste eragin bat du gure gizartean eta identitate kolektiboaren sortzaile moduan ageri da. Horregatik kontuan hartzekoa da aipatu dugun bakoitzean, «Santu Kultural» gisa aipatutakoak ikertzea botere legitimoaren eta literaturaren artean sortzen diren loturez hitz egitea dela.

Literatura irudi sozialen sortzaile

Botere legitimoak literatura irudi sozialak sortzeko bidetzat erabili ohi du, eta neurri horretan bihurtzen ditu «Santu kulturalak» idazle ezagunak. Literaturak eta idazleek etengabe gizartearen oroimena eta gorai-pamena behar dituzte, eta horrela bizirik jarraitu dute gure artean. Euskadi Irratiko esatarriak galdetu zidan ea gaur egun bizirik den idazlerik aitortu dezakegun «Santu Kultural» gisa. Egia esa-

teko, guk nahiago izan dugu eztabaida inguratuta eta beste herrialdeetan egiten den bezala, zenduez hitz egin. Errazago eta neke gutxiago.

Baina botere legitimoak zein estrategia erabiltzen duen santifikazioan jakitea izango litzateke gure asmoa. Eta orain beta izan dut kanpoko aditu batzuk batzeko eta gaia jorrazteko denon artean elkarrizketa luzez eta lasaitasun handiz. Eta horrela bildu ginen Bilbon Estatu Batuetatik, Portugaletik, Kataluniatik, Galiziatik etorritako unibertsitateko irakasleak herrialde bakoitzeko «Santu Kulturalak» eta gureak erkatuz eta konparatuz lana osatzeko.

Gure Santu kulturalak

Kanpoan idazle nagusiei ematen zaien ospea ikusiz, esan beharko genuke gureak apalagoak direla. Nabarmenak dira, nahiz eta beste kasu batzuk aztertu ziren, nagusiak direla Rosalia de Castro Galizian, Verda-

guer Katalunian eta Fernando Pessoa Lisboan eta Portugalen. Horiak idazle eta «Santu Kultural» nagusiak dira. Kontuak ateratzeko, Verdaguerreren eta Rosalia de Castroren izena jarri diote izar banari. Beraz, estratosferan ere «ezagunak» dira idazle horiek. Fernando Pessoaaren irudia nagusia da modernitatearen bidean. Eta Lisboan irudi 'pop' bat da, A Brasileira kafetegiaren aurrean dagoen eskulturatik hasita.

Gurek ez dituzte haien tamainako izpia eta itzala. Guk zazpi aztertu genituen: Bizenta Mogel, Jose Maria Iparragirre, Xabier Lizardi, Esteban Urkiaga 'Lauaxeta', Gabriel Aresti, Lete eta La-boa.

Hasteko, iruditzen zait sei-zazpi horien artean bat gure «Santu Kultural» bakarra aukeratzeko arazoak izango genituzkeela. Garai batean Iparragirre ezinbesteko eta miretsiriko egilea zen. Gaur egun ez da horrela. Ez dugu bakar bat, gure nazio irudia ere, anforaren antzera, hautsia delako.

Eta gainera, oroimen laburrekoak gara. Ziur nago orain urte batzuk Axular izango zela zerrenda burua. Baina gaur egun nork du Axular beren irakurketen artean? Horregatik guztiatik da interesgarria «Santu Kulturalai» buruzko azterketa eta hausnarketa egitea, besteak beste garenaz, ginatekeenaz eta gure izaeraz hitz egiten delako «Santu Kulturalak» aipatuz.

Zirku gizona

KARLA FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ

Uxue Alberdik azaldu bezala, liburu hau German 'Txiki' zenaren bizipenetan oinarrituta dago. German Rodriguez Alkortak (1935-2021), arrantzale ez izatearren, 26 urterekin Getaria utzi eta Frantziara joan zen zirkuan aritzeko. Zirkuarekin Europan barrena 43 urtez ibili ostean, jaioterrira bueltatzea erabaki zuen. Hori da, hain zuzen ere, 'La Belle' liburuaren abiapuntua.

Danielle da istorio honen narratzailea, bere aitarekin batera bizi den neskatoa. Egun batean, eskolatik bueltan zetorrela, gizon txiki bat topatzen du etxeko atarian maleta bati tiraka. Bizilagun berriak Doro du izena, baina zirkuan 'La Belle' deitzen zioten. Harrezkerotik, Danielle behin baino gehiagotan elkartzen da agurearekin eta haien artean adiskidetasun berezi bat sortzen

da. Danielle liluratuta dago Dorok zirkuan bizi izan zuen garaian buruz kontatzen dizkion anekdota eta pasadizo guztiekin. Izan ere, Dorok denetarik egin zuen zirkuan, besteak beste, pailazo, bala-gizon edo palomita-saltzaile. Gainera, bere etxeak bitxikerien museoa dirudi, lehoi diseatu baten burua ere badu egongelan. Dena den, Dororen 'behelainoa' ere ezagutuko du Daniellek, zirkuan distira guztiak ez baitira urre eta, aitzak azaldu bezala, «ez dago betirako irauten duen lilurarik».

Istorio hunkigarria da hau eta, beharbada, horregatik aukeratu du Uxue Alberdik irakurleari lagunduko dion haur-narratzaile bat. Danielle heldu egiten da istorioak aurrera egin ahala, hasierako xalotasuna nolabait galduz. Modu horretan, irakurleek ere hasieran iradoki baino egiten ez diren zenbait gauza ulertuko dituzte. Azken finean, bizitzan, zirkuan bezala, bada-«toki bat non ez den fokuen argirik sartzen». Bestetik, Bruno Hildagoren marrazkiak ere aipagarriak dira, zehetasunez beteta daude, istorioaren tonua indartzen dute eta zirkuko pertsonaien karisma bikain islatzen dute.



LA BELLE
UXUE ALBERDI/
BRUNO HIDALGO
Elkar. 60 or. 11,80
euro

Giza eskubideak

ARANTXA URREBIZKAIA



Teorian, hitzetan behintzat, mundu bazter honetan guztiak gaude giza eskubideen alde, are ekintzatan eskubide horiek urratzen dituztenak. Inor gutxiri entzungo diozu ez dituela aintzat hartzen Nazio Batuek duela 75 urte aitortu zituen eskubideak. Gehien jota ere, batzuk interpretazio murriztak egingo dituzte; esango dizute, adibidez, honetan edo hartan emakume bati edo batzuei eskubide zehatz bat ukatzen zaienean, eskubide hori ez dagoela zerrendatua 1948ko adierazpen hartan.

Hainbestentzat baloreen paradisu izan zen iraganean, ez zizkiguten eskolan giza eskubideak aipatu, ez zen egunkarietan adierazpenaren berri eman. Kallean, liburuetan ikasi behar izan genuen

edozein pertsona dela oinarritzko eskubideen jabe, berez eta salbuespenik gabe, soinean ditugula guztiok jaino bezain laster, jatorria, klase soziala, erlijioa edo sexua kontuan izan gabe. Frankismoaren garaian giza eskubideak zerua ziren, eta gu lurtean bizi ginen.

Aurtengo abenduan beteko dira 75 urte Nazio Batuek eskubideen aldeko adierazpen hura onartu zutenetik eta hor dugu giza eskubideak xehatzeko, ezagutarazteko aukera aproposa, adierazteko tradizioa ez dela aski aitzakia debekuak mantentzeko. 75 urte betetzen diren honetan tradizio berria sortzeko aukera izan dugu, ez diskriminazioarena.

Giza eskubideen kontra doan tradizioa baztertu egin behar dugu, aldatu, egokitu, garbitu. Askori beldurra eragiten dio prozesu horrek, aldaketaren beldur dira eta esango dizute giza eskubideak mugak dituztela, ez direla beti aplikagarri, salbuespenak onartu behar direla.

Estatu batzuek ez dute Giza Eskubideen Adierazpena sinatu. Besteak beste, Siria, Somalia, Afganistan, Saudi Arabia edo Yemen. Hemen, etxean bertan ditugu sinatu bai, baina errespetatzen ez dituztenak, gehienetan, tradizio santua aitazkiatzat hartuta.